



## Dogmak kolokan

**L** aurogei urtez dogma neoliberalak errepikatu ondoren, 2008ko finantza krisiak zalantzan ipini zituen baina ez zituen hondoratu. Oraingoan desberdina da, koronakrisiak eta sistemaren salbamendurako neurri sozioekonomikoek dogma hauek banan-banan leherrarazi dituzte.

Erori diren dogmen artean ondokoak daude. Merkatu libreak dena konpontzen duela eta Estatuak ez dela efizientea izan da lehena. Ondorioz, Estatuaren jardura gutxitu behar zen eta bere ekimenak pribatizatu eta desregulatu behar ziren. Koronakrisiarekin merkatu libreak huts egin du nabarmen. Horren adibide esanguratsua musukoaren gabezia izan da. Aldi berean gobernu eta, orokorrean, arlo publikoa indartu egin dira, krisi erraldoi honetarako irtenbideak egotekotan Estatuak bakarrik bideratuko dituela argi utzita. *Wall Street Journal* elitearen aldizkariaren arabera, AEBetako ekonomia pizteko neurriak herrialde horrek planifikazio zentralerako hartutako inoizko urratsik handiena izan dira.

Lurperatu den beste mantra batek digu gure ahalmenaren gaintik bizi izan gara, nahikoa dirurik ez zegoelako. Osasun arreta garestiegia zen, desenplegurako diru laguntzak eskuzabalegiak, soldatak gehiegizkoak eta arazo sozialetarako diru nahikorik ez omen zegoen. Estatuaren defizita eta zorra murriztea ezinbestekoa zen eta horrek aurrezkia eta austeritatea

Koronakrisiarekin merkatu libreak huts egin du nabarmen. Horren adibide esanguratsua musukoaren gabezia izan da. Aldi berean gobernu eta, orokorrean, arlo publikoa indartu egin dira

eskatzen zuen. Oraingoan, EBren kasuan bezala milaka miloi euro bideratzen dira gastu publiko eta pribatua indartzeko eta defizitaren zein zor publikoaren mugak gainditzea ez da arazoa ekonomia ondo bidean ipintzeko.

Halaber, kapitalak eta enpresak omen ziren aberastasunaren iturriak, ausardia eta berrikuntza tarteko enpleguaren eta errentaren sortzaileak lirateke. Etxealdi garaiak kontrakoa ekarri du bistara, aberastasuna lanak sortzen duela alegia. Langile gehienak etxeratu behar izan zirenean hazkunde ekonomikoa hondoratu egin zen. Eta gainera nabarmen geratu da premiazkoak edo beharrezkoak diren lanek sarritan ordain apala dutela.

Aberatsentzat ona dena guztion aldekoa ere badela dioen topikoa hankaz gora geratu da. Lelo horren arabera,



MIKEL ZUBANO  
EHU-KO IRAKASLEA

ugazaben eta errenta garaien aldeko neurriek inbertsioa handitzen dute eta lanpostuak sortzen dituzte. Baina ekuaizio hori ere ez da balekoa. Enpresek jasotako laguntzak ez dira ezinbestez inbertsiora bideratzen, are gutxiago kapitalismo finantzarioa horren indartsua den garaiotan. Gainera, inbertsio oro ez da enplegu sortzailea, areago, eskulana aurreztea ere ekar lezake. *Forbes* aldizkariak dionez, Espainiako Estatuak 23 aberatsenen errentak %16 igo dira itxialdian. Aldiz, enpleguen galera eta pobrezia arriskuaren hedapena ikaragarria izaten ari da han eta hemen.

Zerrenda amaitzeko, itxialdian jendeak auzolanerako eta kolaboraziorako jarrera erakutsi du nagusiki. Beraz, jendearen pizgarria lehenik eta behin norberaren interesa delako lelo liberala ere auzitan jarri da. Jokabide berekoiak ere egon diren arren, elkartasuna nagusitu da auzokideek nagusien erostetak egitean, mediku zein erizainen jarrera eskuzabalarekin, eta abar.

Zerbait berria eraikitzeko unea da. Horren aldeko aldarriak entzuten dira nonahi. *Financial Times* liberalak ere gobernuaren zeregina handitzearen eta zerbitzu publikoen alde agertzeak paradigma aldaketaren zantzuak mahai gainera ekartzen ditu. Kapitalismoaren birfundazioari buruz Sarkozyk 2009an botatakoa ekartzen du gogora. Oraingoan baina, ez dago atzera bueltarik. ●